

PEOI GIDARI DEIALDIA. BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA. EPAIMAHAIAREN EBAZPENA.

Leitzan, Mendialdea Mankomunitateko egoitzan, 2025eko abenduaren 2an, goizeko 12:00ak izanik, honako epaimahaikideak bildu dira:

- Unai Miranda Berroeta; lehendakaria
- Joseba Sanchez Arizmendiarieta; epaimahaikidea
- Iñigo Iparraguirre Larrañaga; epaimahaikidea, Jose Antonio Irizar Otamendiren ordezkaria
- Maider Castilla Elarre; idazkaria

AURREKARIAK

2025eko irailaren 18ko merezimenduen behin behineko balorazioaren aktak 3 alegazio izan zituen, Unai Perez Sagastibeltzak, Urko Gorostidi Mugicak eta Eneko Ciaurriz Marcok aurkeztutakoak, euskarazko froga dela eta, proba nolakoa izan den galdetuz eta deialdiaren oinarrietan norberak aurretik egiaztatua duen euskara maila hobetzeko aukera dagoenik aipatzen ez dela adieraziz.

Aurkeztutako alegazioak ikusita, epaimahaiak merezimenduen balorazioa berrikustea aproposa ikusi zuen, izan ere, 8.oinarrian euskararen ezagutza merezimendu bezala baloratzeko proba egin zitekela espreski adierazten ez zenez, horrek beste hautagai batzuekiko desberdintasuna sor zezakelako, eta egindako euskara-probak ahozko trebetasuna bakarrik neurtu zuelako.

Hortaz, puntuazioak berrikusi eta 2025eko irailaren 30eko aktaren bidez Uxue Ezpeleta Gago-ri C1 mailarengatik emandako 2 puntuak kendu zitzaizkion.

Hau ikusita, 2025eko urriaren 9an, Uxue Ezpeleta Gago hautagaiak, honako alegazioa aurkeztu zuen:

1- Euskera proba egiterakoan, epaimahaiak C1-en baliokidea den proba egiteko aukera eman zidatela. 2- Proba hau gainditu nuela. 3- Proba hau gainditzeak pliegoen arabera 2 punturekin puntuatzen zela eta hasiera baten horrela jarri zidatela. 4- Ondoren zerrendako beste kide baten alegazioei kasu eginez bi puntu kendu zizkidatela. Beraz, guzti hau aintzat hartuz, azken erabakia errebisatu eta berriro dagozkidan bi puntuak ematea eskatzen dut.

Merezimenduen behin betiko emaitzarekiko aurkeztutako idatzia izanik, berraztertze

errekurtsotzat hartu da.

Hau ikusita, epaimahaiak, honakoa

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Euskara proba egin zuen teknikariarekin harremanetan jarri eta proba bakarrik ahozkoa izan zela konfirmatu du; izan ere, eskakizuna bakarrik ahozkoa zenez eta kontrakorik adierazi ez zenez, merezimenduen atalerako ere ahozko maila baloratu zen.

BIGARRENA.- Errekurtsotan adierazi bezala, parte hartzaileek eskakizuna bakarrik egiaztatzeko edo hortik gorako mailaren azterketa egitearen artean hautatu behar zutela ere adierazi digute.

Hori dela eta, epaimahaiak,

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Uxue Ezpeleta Gagoren errekurtsoa onartzea eta euskararen ezagutza 2 punturekin baloratzea.

BIGARRENA.- Hautagai guztiek aukera berdinak izan ditzaten, euskara proba bat antolatzea eta euskararen ezagutza merezimendu bezala baloratzeko aukera emateko.

HIRUGARRENA.- 5 egun balioduneko epea ematea proba honetara aurkeztu nahi duten hautagaiek Mendialdea Mankomunitateko Erregistro Orokorrean eskaera aurkezteko.

Eguerdiko 13:15ak izanik, epaimahaikideek, akta hau sinatzen dute, behar den tokietan beharrezko ondorioak sor ditzan.

Unai Miranda Berroeta

Joseba Sanchez Arizmendiarieta

Iñigo Iparraguirre Larrañaga

Maider Castilla Elarre